

AGINTZARI SCIS:

BBK BEHARI: Bakarrik dauden adinekoen zaintzari zuzendutako teknologia eta komunitateko ekintza





Itziar Etcheverry Perez de Albeniz

ietcheverry@agintzari.com


616589048

<https://www.agintzari.com>

 **Jarduera:** Gizarte-ekintzaren bidez komunitatearen garapenaren alde lan egiten duen enpresa bat da. Proposamen berritzailek abiarazi eta kalitateko zerbitzuak hornitzen lan egiten dugu, egoera zailean bizi diren pertsona eta kolektiboen beharrian sozialei erantzuna emateko.

 **Sektorea:** Hirugarren sektorea

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 270

 **Lokalizazioa:** Madariaga, 1 - 4 planta, 48014, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA

Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Bakarrik dauden 65 urtetik gorako pertsonekin egin beharreko esku-hartzea planifikatzeko eredu berritzailea da, eta diagnostikoko eta esku-hartze sozialeko metodologiak eta baliabide teknologikoak (kalkulu automatiko, informazioaren kudeaketa eta telematikakoak) uztartzen ditu. Eredu horrek beren esku-hartzea hobetzeko beharrezkoak diren detekzio- eta aurrerapen-baliabideak ematen dizkie gizarte-zerbitzuei.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Agintzari elkarteak, esku-hartze sozialaren eremuan erantzun berritzaileak emateko asmoz, erabaki du kolektibo «ikusezin» honetan jardutea: laguntza-zerbitzuen eskatzaileak izan gabe, bakarrik dauden, eta egoera ahulean egon daitezkeen 65 urtetik gorako pertsonak. Horrela, detektatutako gizarte-beharrizan horri erantzun hobea emateko, BBK Behari programa sortu da, zeinak esku-hartzean txertatzen dituen teknologia berrien balio diferentziala, datuen analisia eta komunitatearen aktibazioa, «Behari» izeneko auzoetako funtsezko erreferenteen bidez.

Agintzarik GISLANekin batera garatutako Teknoadineko ereduaren bidez GIS teknologia eta big-data elementuak txertatzeak aukera ematen du udalerrri bakoitzeko adineko biztanleriaren mapa bat denbora errealean egiteko, eta biztanle horien kalteberatasun-mailak sailkatzeko ere, isolamendu sozialaren arriskuaren diagnostiko bati esker. Bi azterketa horiek hainbat udal-iturriren prozesamenduaren emaitza dira. Iturri horiek automatikoki eguneratzen dira, eta, horri esker, Gizarte Zerbitzuek pertsona horien autonomia eta etxean bizitzen jarraitzea sustatzen dute.

Gainera, prozesu osoa aberastu egiten da «beharien» (auzokideak) bultzada komunitarioaren ondorioz, izan ere, herritar horiek, beren borondatez, programan parte hartzen duten adinekoei laguntzen diete. «Beharien» zeregina pertsonaren osasun-egoeran, egoera fisikoan edo emozionalean aldaketak behatzea da, eta informazio hori aplikazio mugikor batean sartzen dute, non kalkulu automatikoa egiten den; ondoren, arriskua hautematen badu, Gizarte Zerbitzuei jakinarazten zaie automatikoki.

Hala eta guztiz ere, esku-hartze sozialeko eredu berri bat lortu da: estandarizatu, erreplikagarria eta udalerrri bakoitzaren berezitasunetara egokitutakoa. Eredu horrek ahalbidetzen du arrisku-egoerak tipifikatzea, detekzioaren eraginkortasuna hobetzea eta zerbitzuetarako irisgarritasun-neurriak proiektatzea, komunitate zaintzaile, inklusibo eta solidario bat eraikitzen laguntzeaz gain. Horrela, agerian geratzen da zaintza-sistemak etekina atera behar duela datuen analisi eta ziurtasunetatik, teknologiek ematen duten berrikuntzatik, komunitateak pertsona ahulenei buruz duen ezagutza tazitu eta ukiezinetik eta zaintza komunitarioaren indarretatik.

Programa garatzeko mota eta diziplina askotako baliabideak erabili dira. Agintzari prozesu osoaren buru izan da, eta GISLANek eta KAM Telekomunikazio Aholkularitzak tresna informatikoak eta telematikoak garatu dituzte. Basauri eta Santurtziko udalek gidatu dute proiektua, eta beren profesionalak eta azpiegitura jarri dituzte eskura. Bestalde, BBK Fundazioak 200.000 euroko laguntza eman du proiektua ezagutarazteko.

Aurrekariak

Biztanleria zahartzeak eta gizarte-loturak ahultzeak adinekoen bakardade-egoera errazten dute, bai landa-inguruneetan, bai hiri-inguruneetan. Pertsona autonomoak dira, ez dira gizarte-laguntzaren eskatzaileak, baina ez dute erabateko gizarte-ongizaterik eta ez dute erretiro aktiboaren baliabide eta zerbitzuetan parte hartzen. Kolektibo «ikusezina» da, eta horrek zaildu egiten du haren zaintza, eta haren autonomiak eta bizi-baldintzek okerrera egitea azkartu dezake. Beraz, errealitate horren egiaztapenaren aurrean, Agintzarik erabakitzen du pertsona horiei ikusarazteko eta babesteko jardutea.

Erronka

Erronka nagusia da esku-hartze sozialeko eredu bat sistematizatzea, adineko «ikusezinen» kalteberatasun-egoerak goiz detektatzeko eraginkortasuna hobetzeko, eta garaiz jarduteko pertsona horien autonomia babesteko eta etxean bizitzen jarraitzea ahalbidetzeko. Beste erronka bat da komunitate aktibo bat eraikitzea, ingurune hurbileko adinekoen premiekiko sentikorra izango dena, lotura komunitarioak sendotuz laguntza eta zaintza naturaleko iturri gisa.

Ekintzak

1. Teknoadineko Eredua garatzea eta ezartzea, kalkulu automatikorako eta analisi espazialerako sistema teknologikoa: datu-baseak, App-a, mahai gaineko tresna grafikoa eta bakardade-arriskua baloratzeko sistema.
2. Errealitatearen diagnostikoa egitea, udalerriko adinekoengan bakardadeak duen eraginaren analisi kuantitatiboaren bidez, eta sistemaren datuen analisiak eta bakarrik dauden adinekoen zaintzari buruzko baliabide komunitarioek hautemandako indarguneen/ahulezien analisiak dakarren ondoriozko proiektzioa egitea; halaber, auzoetako indargune ukiezinen identifikazioa eta inplikazioa, zaintza komunitarioa indartzeko.
3. Teknologia ezarri eta artatu beharreko unibertsoa identifikatu ondoren, gizarte-teknikariei sistemaren erabilerari buruzko prestakuntza

ematen zaie.

4. Bakarrik dauden adinekoen zaintzari buruzko sentsibilizazio-kanpaina egitea komunitatean eta behariak identifikatzea; behariak geroago gizarte-begiradari buruzko prestakuntza jasoko dute, bakarrik edo/eta gizartean isolatuta dauden adinekoen zaugarritasun-seinaleak detektatzeko.

5. Ekimena bakarrik bizi diren adinekoei jakinarazten zaie, eta, programan parte hartzea onartzen badute, haien gizarte-laguntzen sarea baloratu eta inguruko behariekin matching egiten da.

6. Prozesu osoa monitorizatzen da esperientziaren datuak edukitzeko, eta egokitasuna, eraginkortasuna, eragina eta gogobetetzea baloratzen da.

Lortutako emaitzak

- Teknoadineko informazio-sistema ezartzea Basauri eta Santurtziko udaletan.
- Udalerrri bietako errealitatearen diagnostikoa. Proiektuaren gizarte-irismenaren balorazioa (2 udalerrietako auzo guztiak): 767 adineko zaugarritasun-egoeran bizi dira.
- Zaugarritasunaren balorazioa egin zaie Santurtziko 11.791 pertsonari eta Basauriko 11.385 pertsonari.
- SSBn 117 pertsona zaugarri identifikatzea eta haiengana hurbiltzea, pilotajeko bi auzoetan.
- 17 parte-hartzaile BBK Behari programan.
- Eredua edozein udalerritan erreplikatu daiteke, eta haren ezarpena zatitu daiteke (sistema teknologikoa, diagnostikoak, aktibazio komunitarioa) beharizan zehatzei egokituta.
- Sistema erresilientea da eta datu-iturri eta adierazle berriak txertatzeko prestatua dago; horrela, jatorrian sakabanatuta dagoen informazioaren zentralizazio (input) eta kontsulta/analisi (output) arazo orokor bat konpontzen du, administrazioari erabakiak hartzen lagunduz.
- Ekimenak eragin estrategiko handia dauka bere garapenean inplikaturik dauden erakundeetan, gure jardun-eremuetan hobekuntza sustatzen du eta aukera berriak ematen ditu irizpide berdinak zaugarritasun-egoeran dauden gizarteko beste eremu batzuetan aplikatzeko.
- Arazo handi bat jartzen du agerian, komunitatearen konpromisoa aktibatzen du eta adinekoen zaintza indartzen du.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Software-a.
- Prozesua: Ondasunak ekoiztea eta zerbitzuak ematea.

Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa
- 2 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Antonia (programaren erabiltzailea, 88 urte)
 «Oso pozik nago Ascenekin (Behari); datorren astetik aurrera, goizez eta arratsaldez etorriko zait ikustera. Haren ama ezagutzen nuen, niretzat ez da pertsona arrotza. Espero dut bera ere pozik egotea nirekin»

Amaia (Basauriko Udalaren zahartze aktiboko teknikaria)

«Pandemiaren ondoren bakarrik dauden adinekoentzat zera da, norbaitek badakiela ni hor nagoela, bizirik nagoela, nirekin harremanetan jartzen dela eta segurtasuna ematen didala nire etxean bizitzen jarraitzeko»

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆★★

Aintzatespena: ★★☆☆★★